

Zubieteko erakustokiaren arrakasta San Andres azokan



Joan zen abenduaren 7an Gordexolako udalerrriak San Andres eta Sortzez Garbiaren azoka ezagunaren XIX. azoka antolatu zuen. Azokan Enkarterriko arrazen aukeraketa baten erakusketa egin zen. Halaber, baserriko elikagaiz eta artisautzako objektuz osatutako 130 erakustoki egon ziren ikusgai, Molinar eta Garai plazetan eta frontoian. Zubiete zentroak harritu egin zituen bertaratutakoak aurkeztutako artikulu birziklatuekin. Kafe marka ezagun bateko kapsulekin eskumuturrekoak, paparreko orratzak edo ilerako osagarriak egin zituzten.

Frontoian jarri zen Zubieteko erakustokia izan zen bisitaririk gehien jaso zituenetako bat. Esperientziaren arrakastaren arrazoietakoa bat osagarrien orijinaltasuna eta erabiltzaileek azokako bisitariei adierazitako sinpatia izan zen, eta, horren ondorioz, produktu gehienak agortu ziren.



Erabiltzaileek diseinatutako produktuen aldaera eta koloreen xehetasuna



Miguel Solís, Zentroaren zuzendaria, jardunaldiko partaide batzuekin